

` ` El oscuro en su interior ´ ´

Susana Talayero

14-12-2018 / 8-03-2019

CarrerasMugica

Lagun batek esaten zuenez, gure gidari bakarra da lantegian egunero ekoizten diren etengabeko hondarren gainean jaikitze saiakera. Erakusketa honi buruz idazten ari naiz, keinu jarraitu hori kontuan izanda, materialekiko lotura fisikoa eta zuzena oinarritzat hartuta, eta estudioan jarduera batean buru-belarri arituta; “zer dela eta aritzen gara lanean nekazintasun horrekin?”, galdetzen zuen Natalia Ginzburgek Il mio mestiere lanean.

Plastiko bati buruzko testua idatzi dut; material hori ontzi gisa erabiltzen dut, pinturen aztarnak eta hondarrak pilatzen diren ontzi gisa. Testu bat transkribatu dut; geologiei buruzkoa da, luiziei buruzkoa, materia organikoaren birziklatzeari buruzkoa eta guri buruzkoa ere bai, prozesu zikliko, zikin eta suntsikorraren erdian¹. Gauza bera egin dut beste “plastiko biltzaile” batekin, oraingoan eldarniozko testu batekin². Bi materialak (plastikoa eta testua) denborarekin zurrun bihurtzen dira, “ekintza aztoratzaile” bat egiten duen gorputz baten oskol tatuatu. Bi testuetan aurkitu dut -nahiz tonu mineral/materialean nahiz oniriko/surrealean- niretzat artean lan egiteak duen esanahia. Plastikoen eta testuen arteko muntaketa hau ez da aurretiazko gidioen eta estrategien ondorioa; laneo prozesuetan sortu da, azterketak ahalbidetzen dituen denbora mantsoen ondorioa da. Lana jalgi egiten bada, bultzatzen dugulako da; eta bultzada etengabe hori uste sendo batetik dator, “bizi osoan egingo den gauza bat dela”, berriro ere Ginzburg aipatuz.

Film bateko eszena baten irudia marrazten saiatu naiz: lo dagoen neskato nerabe baten ahotik intsektu handi bat sartu, eta neskak irentsi egin du. Eszena hori grabatu egiten dut narrazio-testuingurutik bakanduz; audiotik atera dut “barnearen iluna”³. Esaldi horrek eman dio izenburua erakusketari. Azken marrazki-sailari ere esaldi horrek ematen dio izenburua -heldu diot berriz, ur-kolore beltzez eta gorriez tindatu ondoren-, lerroen eta gainjarritako marrazkien sareak zeharkatuta. Lan multzo horiek “introspektzio mundutarraren” ariketa gisa ikusten ditut; nolabait ere, ezkutukoaren tresneria osatzen duten kanpoalde horiekin dagoen mugimendu etengabea.

Marrazki-serie horretaz gain, erakusketan bi obra-multzo hauek ere bildu dira:

Paper-zati luzeetan egindako marrazkiak, El festín de la araña eta Historias inéditas de la oruga de la col (2017). Bi piezetan intsektuak margotu ditut, Maria Sybille Merianen marrazkietan oinarrituta (XV. mendeko artista eta esploratzaile alemaniarra), neure imageriarekin batera -pinturaren ibilbideak eta lurrean horizontalean zabaldutako tiren gainean gorputzak izandako ekintza-, nolabait ere vanitas barrokoaren iheskortasun eta heriotza ideia baitakar gogora. Meriani dagokionez, landareen eta animalien arteko biziraupen-harremanean dauden indarkeriazko eszenak interesatzen zaizkit. Marrazki horietan du abiaburua figurazio baten euskarri den Relatos de entrenamiento (2017) multzoak: izaki hibridoak eta elementu ziztakariak daude, lerro lodiz eratutako bilbaturen gainean, amaitu gabeko ipuin bateko gertakariak edo parteak balira bezala artikulatuta.

Lavas y volcanes (2017-2018) eta Mercuryando a 200 grados (2018) pintura-serieak inkausto teknika erabiliz egin dira, hau da, argizari likidua pigmentuekin manipulatur. Beroz eta mugimenduz egindako pinturak dira, eta suzko paisaiak, pikorrak, kraterrak eta isurketak dakartzate gogora. Bitarteko gisa duten berezitasuna dela-eta, pieza horiek aurrez aipatutako “idatzitako plastiko” haiei lotuta daude.

Estanis Comellak editatutako Una acción perturbadora bideoak aurtengo ekainean, Miguel A. Garciarekin (mantra elektroakustikoa) eta Leire Aranberriekin (dantza Butoh plastikoarekin) lankidetzan, egindako erakusketa batean⁴ izandako ekintza du abiaburu.

Erakusketa honetan materialen pilaketa hautematen da, estudioan izaten den etengabeko atzera-aurrea; jarraipeneko obrak dira, eta batzuk besteen ondorioak dira; amaigabeko muntaketen antzera funtzionatzen dute. Estudiotik irten, eta beste espazio bat hartzen dutenean, beste modu bateko bizitza esperimendatzen dute, ezustekoa, “egurats gorrian edozer gauza gerta daiteke”⁵, dio Annie Dillard. Beste gauza hori gertatzeko nahiaren eta arriskuaren artean nago orain, sentsazio hori dut.

¹ Max Frich. El hombre aparece en el Holoceno. Ed. Alfaguara, Madril, 1981

² Antonin Artaud. El arte y la muerte / Otros escritos (1929). Caja negra editora, 2005

³ David Lynch Twin Peaks seriekoa, 2017 “...hau da ura eta hau putzua, edan ase arte eta jaitsi. Zaldia da begietako zuria eta bere barnean iluna...”

⁴ Relatos de entrenamiento, Susana Talayero. CAB Burgos, 2018

⁵ Annie Dillard. Una temporada en Tinker Creek. Errata naturae editores, Madril, 2017





El festín de la araña, 2017. Akwarela eta grafito mylar gainean, 240 x 1100 cm







El oscuro en su interior, 2018. Teknika mistoa paper gainea, 112 x 76 cm



El oscuro en su interior 5/6, 2018. Teknika mistoa paper gainean, 112 x 76 cm





Menina texto, 2018. Menina carpa, 2018. Zuntzak eta metala



Menina velas, 2018. Zuntzak eta metala



El oscuro en su interior 3-2, 2018. Teknika mistoa mylar gainean. 200 x 110 cm



El oscuro en su interior 1, 2018. Teknika mistoa mylar gainean. 200 x 110 cm





Lavas y volcanes, 2018. Enkaustica egurra gainean, 45 x 30 cm



La bicha y Entramado, 2017. Akriliko eta grafito oihal gainean, 230 x 210, 210 x 203 cm



Una acción perturbadora, 2018. Video, 2:28''. Performer: Leire Aranberri. Edizioa: Estanis Comella. Soinua: Miguel A. García.







Mercuryando a 200 grados, 2018. Enkaustica egurra gainean, 60 x 47 cm



Mercuryando a 200 grados, 2018. Enkaustica egurra gainean, 60 x 47 cm







Relatos de entrenamiento, 2017. Tinta, akriliko eta grafito paper gainean, 170 x 140 cm. *Cactus 1*, 2017. Tinta, akriliko eta grafito paper gainean, 102 x 72 cm.




Detritus I, 2018. Zeramika.



Historias inéditas de la oruga de la col, 2017. Akwarela eta grafito mylar gainean, 800 x 315 cm



Historias inéditas de la oruga de la col, 2017. Akwarela eta grafito mylar gainean, 800 x 315 cm



El festín de la araña, 2017. Akwarela eta grafito mylar gainean, 240 x 1100 cm



Susana Talayero (Bilbo, 1961) UPV/EHUn Arte Ederretan lizentziaduna, Erromara joan, eta han bizi izan zen 1986tik 1996ra. Duela gutxi bakarkako erakusketa bat egin du, Relatos de entrenamiento, Burgosko CABen (2018), eta hori da erakusketa honen abiapuntua: Acción bultorekin parte hartu du Verso Nikà proiektuan, Pantelleria-Sizilia (2018) eta L'occasione lanaren egileetako bat da, Amparo Badiolarekin batera (2017-18); topaketa publikoen ekimena da, eta 2011z geroztik Bilbon eskaintzen du lankidetzan. Azkenengo banako erakusketetako batzuk hauek dira: Una certa organizzazione delle cose, AOC F58, Erroma (2017); Kronika geldiezina, Arte Ederren Museoa, Bilbo (2016); Cabezonas, CarrerasMugica, Bilbo (2014) eta Reponer la mesa (procesos gráficos), La Taller, Bilbo (2012). Trittico erakusketa kolektiboan hartu du parte, Tralevolte, Erroma (2013); gaur egun bere obra 68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018, erakusketan ikus daiteke, Bilboko Arte Ederren Museoa.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725